

# noticias de Navarra

Diario de Noticias de Navarra. Noticias de última hora locales, nacionales, e internacionales.

## Bigarren eleberria kaleratu du Ernesto Pratek, 'Orpoz orpo'

Txalpartak argitaratu duen eleberrian umorea, sexua eta ihesaldia uztartzen dira

Miren Mindegia Oskar Montero - Domingo, 28 de Septiembre de 2014 - Actualizado a las 06:08h

iruña - Klandestinitatea, sexua eta umorea: horiek dira Ernesto Prat Urzainki, *Little-en* (Berriozar, 1978) *Orpoz orpo* azken eleberraren hiru gako nagusiak. Hala azaldu zuen egileak berak ostiralean Iruñeko Elkar liburu-dendan ospatutako aurkezpen ekitaldian. Berriozarraren bigarren lana da Txalparta argitaletxearen eskutik datorren *Orpoz orpo*, 2013an Metaziri aldizkari kolektiboarekin kaleratu zuen *Hiru ilargi laurden-en* ondoren.

Egileak, herrian egindako atxiloteta batzuk medio Guardia Zibilarengandik ihesi dabilen pertsonaia baten gorabeherak ditu hizpide kontakizun honetan. Iparraldean hasi eta Italiaraino eramango duen bidaia horretan, argitaletxetik azaltzen den bezala, "aberriaren edo sozialismoaren militante baino sexuaren militante den Karlosek inguruan dauzkan guztiak dantzan jarriko ditu: laguntza emango dioten kideak, poliziak, Erakundea..."

"Erabat konplexurik gabe idatzi nuen istorioa", argitu zuen atzokoan Pratek, "ez nuen konplexurik izan ez sexu eszenak azaltzerakoan ez protagonistaren jarrerak erabakiak eta hautuak euskal gatazkan, klandestinitatean eta militantzia iraultzailean kokatzerakoan". Hala ere, eta sexuak kontakizunaren baitan pisua daukan arren, egileak lehentasuna tramari eman diola ere azaldu zuen: "Sexua bada istorio honetan baina badira gauza gehiago. Irakurlearen jakin-mina piztuko duen trama sortu nahi izan dut, eta trama hori umoretik kontatu".

Jon Jimenez Txalpartako editoreak ere umorearen erabilpena azpimarratu zuen atzokoan. "Umorea den heinean, gure umorea da, guk geure buruaz egiten duguna, kanpotik guri buruz egiten duten umorea indargabetuz". Editorearen iritziz, Literaturara sailaren baitan biltzen den lana ausarta da: "Egiaren ausardia azpimarratu behar da, hemen bizi izan dugun egoera umorez tratatzen duelako. Irakurtzen duen edonork barre egiten du".

Ihesaldian idatzitako ihesaldi istorioa Ernesto Prat Guardia Zibilarengandik ihes egiten zegoela hasi zen idazten, 2008an. *Orpoz orpo* lanaren lehenengo zatia, hartara, ihesaldian hasi zen itxura hartzen, egileak berak atzo azaldu moduan. "Bigarren atala atxilotu eta Toulousseko espetxean nintzela idazten hasi eta behin kalean nintzela bukatu nuen".

Izan ere, Praten egoera pertsonalak eragin zuzena izan zuen, garai hartan, literaturaren arloan murgiltzerakoan. "Ihesaldian garai desberdinak bizi izan nituen eta, oso burumakur nentzen garai batean, garai zail batean, hasi nintzen liburu hau idazten. Egoera zail bati umorea landuz erantzun nion". Hala ere, azpimarratu zuenez, lanak ez du autobiografia arrastorik. "Nire esperientzia pertsonalak baliatu ditut narrazioan baina pertsonaia eta kontakizunak ez du zer ikustekorik nirekin".

2009an, sasia zegoela, *Pyrenaicako* mendi ipuinen IV. lehiaketan lehen saria eskuratu zuen Pratek *Free Peltier Little Horse* lanarekin eta 2012an Iruñeko Udalak antolatutako Egile berrientzako euskarazko XXIII. literatur lehiaketan hirugarren saria irabazi zuen *Lozen izan nintzen* lanari esker.

### XEHETASUNAK

Fitxa teknikoa. Egilea: Ernesto Prat Urzainki. Argitaletxea: Txalparta. Bilduma: Literaturura. Salneurria: 17 euro.

Eleberraren inguruko itzaldiak, Elizondon eta Izuran. Joan den astean Donostian eta pasa den ostiralean Iruñean aurkeztu ondoren, egileak 'Orpoz orpo' eleberraren inguruko hitzaldi txandari ekingo dio laster. Lehenengo Elizondoko gaztetxean izango da, urriaren 10ean, ilunabarrean. Eta bigarrena Izuran (Nafarroa Beherea, Oztibarre eskualdea) eskaniko du, urriaren 17an. Etorbizunera begira, bere sorterrira den Berriozarren ere hitzaldiren bat lotzea du helburu idazleak.

### Cargando comentarios...



### Haz tu comentario

#### Condiciones de uso

- No están permitidos los comentarios no acordes a la temática o que atenten contra el derecho al honor e intimidad de terceros, puedan resultar injuriosos, calumniadores, infrinjan cualquier normativa o derecho de terceros.
- El usuario es el único responsable de sus comentarios.
- Diario de Noticias se reserva el derecho a eliminarlos.

Escribe tu comentario

introduce tu comentario

Comentarios Número de caracteres (500/500)

[Soy usuario registrado](#)

Introduce tus datos.

[Quiero registrarme](#)

Usuario registrado

Correo electrónico   Recordarme la próxima vez Contraseña  [¿Olvidaste tu contraseña?](#)

¡Hecho!



Recibirás un correo electrónico para confirmar tu registro.

Enseguida te devolveremos a la página en la que estabas donde verás tu comentario publicado

Publicidad

- 
- 
- 
- 
- 

• © Zeroa Multimedia

- 
- 
- 
-